

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4224

EBAZPENA, 2022ko irailaren 19koa, Familia eta Haurren zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei 2022ko deialdian bizi-tza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko egoeraren diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko dirulaguntzak emateko balorazio-batzordeko kideak izendatzen dituen.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko uztailaren 6ko Aginduak (2022ko uztailaren 19ko EHAA, 139. zk.) Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei bizi-tza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko egoeraren diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko dirulaguntzak emateko oinarriak onartzen ditu, eta 2022rako deialdia egiten du.

Aginduaren 13. artikuluan ezartzen denez, balorazio-batzorde bat sortuko da. Eusko Jaurlaritzako Familia eta Haurren zuzendariak ezarriko du batzorde horren osaera. Gutxienez hiru eta gehienez lau pertsonak osatuko dute, eta Familia eta Haurren Zuzendaritzako goi-kargudunak edo enplegatu publikoak izango dira, bi sexuen presentzia orekatuarekin, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Gainera, ezartzen du Zuzendaritzako enplegatu publiko bat izendatuko duela kide anitzeko organoko idazkari izateko, hitzarekin baina botorik gabe.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio Batzordea osatuko duten pertsonak izendatzea eta batzordearen osaera argitara ematea. Hona hemen osaera:

Presidentea: Ignacio Ruiz Fernández jauna, Familia eta Haurren Zuzendaritzako Arloko arduraduna.

Kideak: Eva María García Solana andrea, Familia eta Haurren Zuzendaritzako teknikaria, eta Susana Sendino del Cerro andrea, Familia eta Haurren Zuzendaritzako teknikaria.

Idazkaria: Silvia González de Mendivil Ortiz de Jocoano, Familia eta Haurren Zuzendaritzako teknikaria.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako eta denek horren berri izan dezaten.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta, beronen aurka, gorako errekurtsioa jarri ahal izango zaio Gizarte Politiketako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 19a.

Familia eta Haurren zuzendaria,
MIREN IRUNE MUGURUZA MENDARTE.